


kultura



musika



gourmet



sport



market



zinema



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024



bilbao.eus/basquefest


bilbao
basque
FEST



Bilbao basque FEST: euskal kulturaren hitzordu handia

Bost egun Bilborekin eta euskal kulturarekin maitemintzeko. Aste Santu honetan Bilbao basque FEST iritsiko da Bilbora, adin eta gustu guztientzako 200 jarduera baino gehiagorekin. Martxoaren 27tik 31ra, jaialdiak 156 artista bilduko ditu kontzertuetan, dantzetan, bakarrikietan eta kaleko ikuskizunetan, eta erromerietan, kirol tradizionaleko erakustaldietan, dastatzeetan eta tailerretan goatzera eta parte hartzera gonbidatuko du publikoa, gure lurraldeko produktu onenekin.

2024ko edizioak **euskarri berri bat estreinatuko du bere egitaraua zabaltzeko: QR kodea inprimatuta duen txapa bat, ekitaldiari buruzko informazio guztia eta jaialdiaren egunez eguneko agenda zuzenean eskuratu ahal izateko**. Ekimenak jasagarritasunaren aldeko apustua egiten du, materialen erabilera zentzuzkoagoa eginez eta gaur egungo joera digitaletara moldatuz, horietan gailu mugikorrak baitira nagusi. Gainera, beharrezkoa denean programa berehala eguneratzen dela bermatzeko modu bat da.

Sei dira ohiko gaiak: Gourmet, Kultura, Musika, Market, Zinema eta Sport. Baina, aurtengo jaialdian **emakumezkoen talentua eta sortu berri diren taldeak** izango dira ardatz nagusiak, eta horiei ohiko proposamenak gehituko zaizkie: **kalejirak, dantzaldiak, "anfitrioien" ibilbide antzeztuak, Itsasertzeko itsasaldiak Mirentxurekin eta Begotxurekin...**

Haurren programazioa ere indartu egin da aurtengo Bilbao basque FESTen. Casilda Iturrizar parkean **zirku-tailerrak eta antzerki-saioak** egingo dira egunero; **Zabalgune eraikinean, berriz, hainbat magia-ikuskizun egingo dira**. Haurrek ere bisita berezia izango dute: **Gargantua ezagun eta dibertigarriarena, Guggenheim Bilbao Museoko zabalgunean**.

Bisitariak erakartzeko poloa

Hiriko ekitaldi honek **Hiribilduaren dinamizazioa sustatzen du jaiegunetan, eta turistak eta bertakoak erakartzen ditu** bere eskaintza bereziarekin. Proiektu estrategiko honek jarduera sortu eta Bilboko merkataritza babesten du, baita "hurbileko" merkatua ere, bere Gourmet Txokoan, euskal gastronomia bikainari eta eskualde turistikoetako produktu erakargarriei balioa emateko gunea.

Euskal kulturaren jaialdirik handiena ez litzateke gauza bera izango zu gabe. Zain izango gaituzu!





Bilbao basque FEST zenbakitan

5

egun Bilbao basque FEST programazioarekin.

6

gai-multzo (Kultura, Musika, Zinema, Sport, Market eta Gourmet).

12

establezimenduk eta elkartek parte hartuko dute Bilbao basque FEST Gourmeten.

30

gune, programazio propioa dutenak (Zabalgune eraikina, BBK aretoa, Gourmet Txokoko karpa, Azkuna Zentroa, Guggenheim Bilbao Museoko zabalgunea, Bilborock, Pio Barojako pantalana, Martzana 16, Martzanako kaia, Bilboats, Sport Arenal, Ledesma, Villarias, Garcia Rivero, Poza Lizentziatua, Erribera, Kafe Antzokia, Azkena aretoa, Rocket, Erripako kaia, Zazpikaleak, Gas plaza, Bizikidetza plaza, Casilda Iturrizar parkea, Areatzako kioskoa, Berreginen Museoa, Diputazio kalea, Artxanda eta Bilbo Historikoa).

34

kirol-jarduera.

58

musika-, dantza- eta antzerki-ikuskizun.

175

jarduera programatu dira, gehienak doakoak.

125

langile Bilbao basque FEST ekoizten eta gauzatzen.

30

enpresa en la produkzioan.

156

artistak osatzen dute programazioa.

308

atxikitako ostalaritza- eta merkataritza-establezimendu (jatetxeak, tabernak, gozotegiak eta denda espezializatuak).

900

Leku Gourmet Txokoko **espres dastatzeetan parte hartzeko.**

476

Leku Gourmet Txokoko **tailerrak parte hartzeko.**

15.000

txapa QR informatibo batekin, jarduerak, ordutegiak eta informazio erabilgarria zehaztuz (eu/en/cas/fr).

130.000

pertsonak parte hartu zuten 2023ko edizioko proposamenetan.

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



musika

Bilbao basque FEST ezinbesteko hitzordua da musikazaleentzat. Bluesa, jazz, rocka, popa eta euskal musika tradizionala bezalako generoek leku nabarmena dute kartelean, eta aurtan, gainera, emakumezko ahotsek ordezkariak nabarmena izango dute. Azkuna Zentroan egingo den folk-zikloan, adibidez, emakumeak buru dituzten taldeak izango dira protagonistak, hala nola **Kuttune, Sarrabete eta Amaterria**.

Hainbat estreinaldi ere aurkeztuko dira euskal kulturaren festa handian. Bertan izango da, adibidez, **Nøgen taldeko abeslari ohia, Eider Sáez, bere bakarkako lehen lanarekin**; hark Areatzak Kioskoko publikoa liluratuko du euskarazko eta gaztelaniazko bere pop-rock melodiekin.

Aurtengo edizioan, jaialdiak proposamen original bat programatu du Berreginen Museoan: **"Huesos", Manu Gaigneren eta Puy Barralen proiektua**, poesia eta musika bateratzen dituen.

Iazko estreinaldiaren arrakasta handiaren ondoren, jaialdiak "Taberna Live Music" programatu du berriro hiri osoan aretoetan: Azkebam Rocket... kontzertuen zikloan hainbat taldek parte hartuko dute zuzenean, Norman Bates eta Triple Zerok edo Iñigo Puertas bakarlariak, adibidez.

Hiriko beste txoko batzuetara ere iritsiko da musika, **kalejira alaiekin (Poza Lizentziatuaren kalean, Villarias kalean, Ledesman...) eta erromeriekin (Gas plazan, Areatzak kaian eta Artxandan)**, eta, gainera, publikoak euskal dantzak dantzatzen ikasi ahal izango du.

Urtero bezala, rock-akordeak entzungo dira Kafe Antzokiko agertokian, eta gauero bertara igoko dira tokiko talderik onenak, **Bilbao Basque FEST Rock City** esparruan.

Nota elektronikoak nahiago dituztenentzat, **Martzana kalean eta kaian DJ saioak** eskainiko dira arratsaldeko bi emanalditan, eguneko azken orduko aperitiboa eta kopa girotzeko.



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Azkuna Zentroko musikaldian emakumeak izango dira protagonista

Artziniegako Nerea Quincoces perkusio-jotzaile, abeslari eta moldatzaileak zuzendutako musika-proiektuak, Kuttunek, irekiko du Bilbao basque FEST hilaren 27an, asteazkenean. Bere proiektuak euskal erritmoak eta Kubako eta Afrikako musika konbinatzen ditu, jazz ukituekin.

Hurrengo egunean, Bilboko Udal Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du (bi txistu, bi silbote, atabala, akordeoia eta txalaparta), Oinkariko hiru dantzari bikotek eta lau erraldoik lagunduta.

Martxoaren 29an, ostirala, Sarrabete igoko da agertokira, euskal folklorean ia ahaztuta dagoen instrumentu bat, zanfona, berreskuratu eta ikusgai egin nahi duen taldea, soinu berriak esploratzen dituen bitartean. Larunbatean, Amaterrak bidaia liluragarri batean murgilduko du publikoa, zentzumen bitartez. "Éter" izena du bere lehen albumak, naturarekin berriz konektatzea proposatzen duen proiektu oniriko bat.



Kuttune

Kokapena: Azkuna Zentroa

Datak eta ordutegiak: Martxoaren 27an, asteazkena, 19:00etan

Bilboko Udal Txistulari Banda

Kokapena: Azkuna Zentroa

Datak eta ordutegiak: Martxoaren 28an, osteguna, 19:00etan

Sarrabete

Kokapena: Azkuna Zentroa

Datak eta ordutegiak: Martxoaren 29an, ostirala, 19:00etan

Amaterra

Kokapena: Azkuna Zentroa

Datak eta ordutegiak: Martxoaren 30ean, larunbata, 19:00etan

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Dantza herrikoia Gas plazan, Areatzako kaian eta Artxandan

Bilbao basque FEST euskal dantza tradizionalaz gozatzeko aukera paregabea da, hasi berri direnentzat nahiz esperientzia duten "dantzariarentzat". Ostegunetik larunbatera, Dantza Plazan egingo da Gas plazan, Ziortza eta Leire, Jira Musika eta Ortzadar konpainiekin; horiek beren koreografia alaiak jarraitzera animatuko dute publikoa. Festak igandean jarraituko du, Gaztedik Areatzako kaian egingo duen dantza plazan eta erromeria berriarekin. Jaialdiaren gune klasiko batean egingo da: Artxandan, eta euskal dantza tailer bat ere eskainiko dute.

Ziortza eta Leire

Kokapena: Gas plaza

Fechas y horarios: martxoak 28 osteguna 19:00etan

Jira Musika

Kokapena: Gas plaza

Fechas y horarios: Martxoak 29 ostirala 19:00etan

Ortzadar

Kokapena: Gas plaza

Fechas y horarios: Martxoak 30 larunbata 19:00etan

Gaztedi

Kokapena: Artxanda (patinatzeko pista)

Fechas y horarios: Martxoak 31, igandea, 12:00etatik 12:45era (euskal dantza tailerra) eta 12:45etik 14:00etara (erromeria)

Dantza Plazan

Kokapena: Areatzako kaia

Fechas y horarios: Martxoak 31, igandea, 13:00etatik 14:00era

Kontzertu poetikoa Berreginen Museoan

"Huesos" Manu Gaigne eta Puy Barralen proiektua da. Poesiaren eta musikaren arteko elkarrizketa bat da, egunerokotasunari buruzko hausnarketa egiten duena. Kontzertu original hau Berreginen Museoan izango da, eta perkusioak eta ahotsak ustekabeaz aldatuko dituzte erritmoak, publikoa hitz-jokoekin harritzeko.

"Huesos", Manu Gaigne eta Puy Barralekin

Kokapena: Berreginen Museoa

Data eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 12:00etan

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Eider Sáezen bakarkako lan berriaren estreinaldia Areatzako kioskoan

Kresalaren eskutik egingo den gaueko dantzaldiari (formatua iaz estreinatu zen eta sekulako arrakasta izan zuen) aurten Eider Sáez Izquierdo abeslari eta konpositorearen bakarkako lehen lanaren aurkezpena gehituko zaio Areatzako kioskoan. Eider Sáez EIDER izenaz da ezaguna, eta Nøgen taldeko buru izan da 2018tik 2022ra. Bere abestiak, euskaraz eta gaztelaniaz, pop-rock estilokoak dira.



EIDERen kontzertua

Kokapena: Areatzako kioskoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 29, ostirala, 20:30ean.

Gaueko dantzaldia (Kresala)

Kokapena: Areatzako kioskoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 30, larunbata, 20:30ean.

Gaueko saioak “Taberna Live Music” zikloan

Bilbao basque FEST jaialdiak gaueko kontzertuak eskainiko ditu hiriko hainbat taberna eta pubetan. Azkena Aretoko agertokira igoko dira Iñigo Puertas konpositorea, jazz eta rap doinuak uztartzen dituen, Norman Bates indie-rock taldea, eta Triple Zero kementsuak, “Brain Shakin ‘Soul Breakin’ Rock and Roll” deitzen dioten estiloarekin. Rocketen, Chulería, Joder! punk taldeak joko du ostegunean, 20:00etan.

Chulería, Joder!

Kokapena: Rocket aretoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 20:00etan

Iñigo Puertas

Kokapena: Azkena Aretoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 21:00etan

Norman Bates

Kokapena: Azkena Aretoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 29, ostirala, 21:00etan

Triple Zero

Kokapena: Azkena Aretoa

Datak eta ordutegiak: Martxoak 30, larunbata, 21:00etan

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Euskal talde onenak Basque Fest Rock Cityn

Bilboko agertoki klasiko bat, Kafe Antzokia, jaialdian izango da aurten ere, tokiko talde handiek parte hartuko duten kontzertu-ziklo batekin. Gauero, 22:00etatik aurrera, taldeek zuzeneko emanaldi zirrara-
rriak eskainiko dituzte.

Generoaren zale amorratuek hitzordua dute Akatz, Arratians, Jim Jones Allstars, Los Retumbes, Munlet
plays Devo, Paniks, MFC Chicken eta The Allnighters taldeekin.

Kokapena: Kafe Antzokia

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 27, asteazkena

Akatz eta Arratians taldeen kontzertuak, 22:00etan

Martxoak 28, osteguna

Jim Jones Allstars eta Los Retumbes taldeen kontzertuak, 22:00etan

Martxoak 29, ostirala

Munlet Plays Devo eta Paniks taldeen kontzertuak, 22:00etan

Martxoak 30, larunbata

MFC Chicken eta The Allnighters taldeen kontzertuak, 22:00etan

Jazza, funkya eta rocka Bilbo historikoan zehar

Ezinezkoa izango da Funky Brass, Rock'n Brass eta Jazz & Fusion Musik taldeen eskutik dantza ez egitea. Zazpikaleetako eta Martzanako kaleak girotuko dituzte, arratsaldero, 19:00etatik aurrera. Hip hop, jazz, funky, swing eta blues notak haize- eta perkusio-instrumentuekin konbinatuko dira.

Funky Brass

Itsasaldia: Erriberako Merkatua, Erriberako zubia, Martzana kalea, Aretxaga kalea, San Frantzisko kalea, Hiru Zutabe plaza.

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 19:00etan

Rock'n Brass

Itsasaldia: Naxa kalea, Mesedeetako kalea, Martzana kalea, Aretxaga kalea, Erriberako Merkatua

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 19:00etan

Jazz & Fusion Musik

Itsasaldia: Urazurrutia kalea 24, Bilbi plaza, Hiru Zutabe plaza, Artxaga kalea, Martzana kalea

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 19:00etan

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Etengabeko festa kalejira animatuenekin

“Ziortza eta Leire”, “Izalde”, “Jira Musika” eta “Samasiku” gisako taldeek euren erritmo herrikoi alaiekin girotuko dituzte Garcia Rivero, Villarias, Poza Lizentziatua eta Ledesma kaleak. Aurten, berrikuntza gisa, “Bilbotxeros band” taldeak bere musika koralarekin bat egingo du festarekin, Diputazio kalean.

Kokapena: Poza Lizentziatuaren kalea-García Rivero kalea

Datak eta ordutegiak:

13:30etik 15:00etara

Martxoak 28, osteguna: **Ziortza eta Leire**

Martxoak 29, ostirala: **Izalde**

Martxoak 30, larunbata: **Jira Musika**

Kokapena: Villarías-Ledesma kaleak

Datak eta ordutegiak:

13:30etik 15:00etara

Martxoak 28, osteguna: **Izalde**

Martxoak 29, ostirala: **Jira Musika**

Martxoak 30, larunbata: **Ziortza eta Leire eta Samasiku**

Kokapena: Diputazio kalea

Datak eta ordutegiak:

13:30etik 15:00etara

Martxoak 30, larunbata: **Bilbotxeros Band**

Martzanak dardara egingo du “Kaia on set” Dj saioekin

Saio bikoitzak, 13:00etan eta 18:00etan, bazkalosteko aperitiboa edo kopa girotzeko. Kaia eta Martzana kaleko 16. zenbakia hainbat Dj-en agertoki izango dira ostegun, ostiral eta larunbat arratsaldeetan.

Kokapena:

Kaia eta Martzana kalea 16.

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30
larunbata

(Martzana kalea 16) 13:00etatik 15:00etara

(Martzanako kaia) 18:00etatik 21:00etara



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



kultura

Bilbao basque FEST jaialdiak euskal kulturari balioa ematen dio hainbat formatutan: dantza tradizionalak eta abangoardistak, umorea, antzerkia, ibilbide historikoa... **Salbatzaile eta Aukeran** konpainiek dantza-erakustaldi hipnotikoak egingo dituzte Isozaki dorre ezagunek irudikatzen duten espazioan.

Barre-algarak ziurtatuta daude "Humor and Basque" saioko bakarriketetan, baita **Mirentxu eta Begotxu bikotearekin Itsasadarrean zehar egingo diren itsasaldietan ere**, eta Bilbon maiatzean ospatuko den UEFA Women's Champions Leagueko finalari buruzko hausnarketa partikularrak egingo dituzte.

Hiria "**Bilboko anfitrioien**" eskutik bisitatzea oso esperientzia berezia da. Gidari dibertigarri horiek hiribilduaren historia errepasatuko dute, Zazpikaleetatik eta Areatzatik egunero egingo duten ibilbide baten bidez.

Bilbao basque FEST **plan bikaina da txikiak dituzten familientzat: zirku-tailerrak eta antzerki- eta magia-saioak eskainiko dira Casilda Iturrizar parkean eta Zabalgune eraikinean**. Aurten ere bertan izango da euskal pertsonaia ezagunenetako bat: Gargantua. Haurren zain egongo da, ahozapia jantzita eta mahai-tresnak prest dituela, Guggenheim Bilbao Museoko zabalgunean.

Aurten, kale-antzerkiko egitaraua zabaldu egingo da **Erripako kaian**-iaz estreinatu zen Bilbao basque FESTeko agertoki gisa-, eta "Yijaaa!!!", "**Soy la bomba**" eta "**Jacuzzi**" izango dira bertan.





Dantza garaikidea eta tradizionala Bizikidetza plazan

Tradizioa eta abangoardia. Ostegunean (hilak 28) eta ostiralean (hilak 29), bi dantza-ikuskizun antolatu dira Bizikidetza plazan, Isozaki dorre ezagunen artean. Salbatzaile talde historikoak (5 eta 50 urte bitarteko 200 kidez osatua) bere koreografia animatuak eskainiko ditu, kultura herrikoian errotuak. Hurrengo egunean, Aukeran konpainiako dantzariak beren "Aiurri" proiektua hurbilduko diete jaialdiko ikusleei. Proiektu horrek gizakiaren mugimenduaren beharraz hausnartzen du.

Salbatzaile dantza taldea

Kokapena: Bizikidetza plaza

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 18:30ean

"Aiurri", Aukeran

Kokapena: Bizikidetza plaza

Datak eta ordutegiak: Martxoak 29, ostirala, 18:30ean

Bakarrizketa dibertigarriak Bilborocken Humour and Basque zikloan

Barre-algarak ziurtatuta daude Bilborocken. Jon Plazaola umorista, aurkezle eta gidoilariak bakarrizketa-ziklo arrakastatsu honi hasiera emango dio ostegunean, martxoak 28. Jon Antena 3eko "Allí Abajo" telesailean lñaki pertsonaiagatik ezagutzen dute Estatuan, baina "La pequeña Suiza" (Kepa Sojo, 2019) eta "Villaviciosa de al lado" (Nacho G. Velilla, 2016) film luzeetan ere parte hartu du, baita hainbat antzezlanetan ere. "Tu Tum Platz" da Bilboko jaialdirako egin duen proposamenaren izena, eta bere jatorrira itzuliko da umorista gisa.

Hurrengo egunean "Bocabeats Comedia" iritsiko da, euskal bikote komiko arrakastatsuenetako baten inprobisazio ikuskizun berria: Ivan Pérez eta Aitor Vidaurreta.

Larunbatean, hilak 30, Aroa Berrozpe nafarraren txanda izango da. Bakarrizketari ezagunak 200.000 bistaratze baino gehiago lortu zituen Navarra Televisión Sari VII. edizioko galan (2022), gaurkotasan politikoaren inguruan egindako azterketa partikularrarekin.

"Tu Tum Platz", Jon Plazaola

Kokapena: Bilborock

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 20:00etan

"Tirando del carro", Bocabeats Comedia

Kokapena: Bilborock

Datak eta ordutegiak: Martxoak 29, ostirala, 20:00etan

"Mejor será reírnos", Aroa Berrozpe

Kokapena: Bilborock

Datak eta ordutegiak: Martxoak 30, larunbata, 20:00etan

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Itsasadarreko itsasaldi panoramikoak Mirentxu eta Begotxurekin

Mirentxuk eta Begotxuk adiskidetasuna eta umorea partekatzen dituzte. Aurten ere itsasadarreko itsasaldi dibertigarriak gidatuko dituzte, Bilboats itsasontzian. Bikote dibertigarri honek modu komikoan aztertuko du Europako emakumezkoen futbol-gertakaririk garrantzitsuena, maiatzaren 25ean Bilbora iritsiko dena: UEFA Women's Champions Leagueko finala. Hiriari, protagonistei... eragingo dien inpaktua errepasatuko dute, eta gai horrekin turistei eta bertakoei barre eragingo diete 30 minutuko itsasaldian. 12 urtetik gorakoentzat bakarrik.



"We are the Champions League"

Kokapena: Bilboats (Irteera: Pio Baroja plazako pantalana. Itsasaldia: Carola Garabiraino, ziaboga eta buelta irteerako puntura)

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata, 11:30, 12:30, 13:30, 16:30, 17:30 eta 18:30ean.

Tiketak eskura <https://www.bilboats.com/eu/> webgunean eta Bilboats bulegoan (Pio Baroja plaza) 3 €

Ibilbide originala hirian zehar, "Bilboko Anfitrionien" eskutik

Hurbildu "Bilboko anfitrioi" ezagunen ibilbide antzeztuetara hiriari buruzko datu, bitxikeria eta pasarte historikoak ezagutzera. Beti umore ukitu batekin, pertsonaia dibertigarri horiek zur eta lur utziko dituzte turistak, eta hiribildua berriz deskubritzeko aukera emango diete bertakoei.

Kokapena: Irteera San Anton elizatik (Zazpikaleak)

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata, 12:00etan



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Casilda Iturrizar parkea eta Zabalgune eraikina, familien dibertsiorako epizentroa

Goizeko saioetan malabarak, akrobaziak eta oreka lantzeko zirku-tailerrak egingo dira, 4 urtetik gorakoentzat, Casilda Iturrizar parkean, La Gloren eskutik. Arratsaldean, erdiguneko naturagune honetan zirkuarekin lotutako hainbat familia-antzezlan egingo dira. Euria eginez gero, jarduera hori bertan behera geratuko litzateke, aire zabalean delako. Baina bada beste plan bat ere, ziurtatua: Zabalgune eraikinean "Oliver & Luiba: los inventores" ikuskizuna izango da ikusgai arratsaldero, 19:00etatik aurrera. Ikuskizun horrek 2023ko Espainiako Txapelketako "magia komikoaren" kategoriako lehen saria lortu zuen.

La Glo, zirku-tailerrak (4 urtetik gorakoentzat)

Kokapena: Casilda Iturrizar parkea

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata, 12:30etik 14:00etara

"Historias de un baúl", Trotamundos konpainia. Familia-antzerkia

Kokapena: Casilda Iturrizar parkea

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28, osteguna, 18:00etan

"Mute", Orain/Bi konpainia. Familia-antzerkia

Kokapena: Casilda Iturrizar parkea

Datak eta ordutegiak: Martxoak 29, ostirala, 18:00etan

"Bualá", Txaloka konpainia. Familia-antzerkia

Kokapena: Casilda Iturrizar parkea

Datak eta ordutegiak: Martxoak 30, larunbata, 18:00etan

"Oliver & Luiba: los inventores"


Kokapena: Zabalgune eraikina

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata, 19:00etan



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Gargantua Bilbao basque FESTera itzuliko

Sardexka eta koilara eskuan hartuta, Gargantua ikonikoa haurren zain egongo da Guggenheim Bilbao Museoko zabalgunean, barruko txirristan ondo pasa dezaten. Iazko bere debutean izan zuen harrera ona ikusita, erraldoi maitekor honek berriz bisitatuko du Bilbao basque FEST, Udal Musika Eskolarekin batera.

Kokapena: Guggenheim Bilbao Museoko zabalgunea

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata,
11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

Udal Musika Eskolak lagunduta, 12:00etatik 13:30era

Jira Musikak (martxoak 28, osteguna), Ziortzak eta Leirek (martxoak 29, ostirala) eta Izaldek (martxoak 30, larunbata) lagunduta, 17:00etatik 18:30era



Erripako kaiak egitarau zabalagoa izango du

Aurreko edizioan, Erripako kaia Bilbao basque FEST eko kokaleku berri gisa estreinatu zen, eta sekulako arrakasta izan zuen. Horregatik, aurten egitarau zabalagoa izango du, eta egunero izango da zerbait. «Yijaaa!!!» ikuskizunak martxoaren 28an, ostegunean, irekiko du antzezlanen zikloa, Goitibera konpainiaren eskutik. Aristides Smithek eta Giovanni Cannoli laguntzaile leialak osatzen dute taldea, eta eroriko librea egingo dute munduko gailur altuenetik.

Hurrengo egunean, Bea Larrañagak bere gozogintza berezian murgilduko du publikoa, "Soy la bomba" bidez. Bertan, mundua zorionez betetzearen alde apustu egingo du, chantillyaz betetako gozokiekin. Larunbatean, hilak 30, burbuilei buruzko gogoetak partekatuko ditu "Jacuzzi" antzezlanean.

"Yijaaa!!!" (Goitibera konpainia)

Kokapena: Erripako kaia

Datak eta ordutegiak: 28. osteguna, 18:00etan

"Soy la bomba" (Bea Larrañaga)

Kokapena: Erripako kaia

Datak eta ordutegiak: 29. ostirala, 18:00etan

"Jacuzzi" (niMú)


Kokapena: Erripako kaia

Datak eta ordutegiak: 30. larunbata, 18:00etan



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST




sport

Euskal herri-kirolak ezinbesteko jardueretako bat dira Bilbao basque FESTen. Trebetasuna, indarra eta gaitasuna bateratzen dira erakustaldietan eta probetan. Gainera, turistek eta bertakoek **diziplina horiek probatu ahal izango dituzte hainbat tailerretan, harri-jasotzaile baten larruan jarri edo gurpil-arras-tean zenbateko indarra duten neurtu ahal izateko.**

Trontza-, ingude- eta harri-desafio zirraragarriek, sokatirak eta txinga-garraioak ehunka lagun bilduko dituzte Areatzako kaian. Aurtengo egitarauak, gainera, Bizkaiko Orga Txapelketa Ofizial mistoa barne hartuko du.





Herri-kirolen erronka zirraragarriak

Euskal kirol tradizionalak, herri-kirolek, leku berezia dute Bilbao basque FESTen. Ingude- eta harri-jasotzea, sokatira, txinga-garraioa, trontza... Proba horiek guztiak ostegunean (martxoaren 28an) hasiko dira, emakumezkoen eta gizonezkoen Bizkaiko Orga Joko Txapelketa Ofizialarekin, Areatzako kaian.

Proba fisiko ikusgarri horiek dira jaialdiko ikuskizun txalotuenetako bat. Gainera, 8 urtetik gorakoentzako hainbat tailer programatu dira trontzan, sokatiran, gurdi-jokoan, artaburu-bilketan edo gurpil-arrastean hasteko.

Kokapena: Areatzako kaia

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 28, osteguna, 12:30ean

Bizkaiko Txapelketa Ofiziala: Orga-jokoa

1. kategoriako harri-jasotzaileen desafio mistoa

Ingude-altxatze desafio mistoa

Martxoak 28, osteguna, 17:30ean

Alturako aizkora-desafioa (5 metroko altueratik)

Barrenatzaileen desafioa, taldeka

Martxoak 29, ostirala, 12:30ean

1. kategoriako aizkolarien desafioa: ebaketa mota desberdinak, lan luzea, ebaketa berti-kalean, kolpeka eta abiadura bizian.

Iparraldeko jokoen desafioa: lasto-altxatzea / lasto-jaurtiketa / ingude-altxatzea.

Martxoak 29, ostirala, 17:30ean

Trontza-desafio mistoa

Goma gaineke sokatira-erakustaldia, munduko txapeldunen eskutik Sokatira-desafioa

Trontza probatzeko aukera

Martxoak 30, larunbata, 12:30ean

Crossfit eta herri-kirolen desafioa: talde mistoen arteko proba. Bertan, Crossfiteko eta herri-kiroletako hainbat diziiplina egin beharko dituzte, erlojupean.

Martxoak 30, larunbata, 17:30ean

Pentatlon desafioa: erlojupeko 5 diziiplina: harri-jasotzea, gizon-proba, aizkora, txinga-garraioa eta lasterketa.

Herri-kirolen tailerrak

Kokapena: Areatzako kaia

Datak eta ordutegiak: Martxoak 28 osteguna, 29 ostirala eta 30 larunbata, 11:30ean eta 16:30ean

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



Euskal gastronomiarik onena Gourmet Txokoan

Euskal gastronomia mundu osoan da ezaguna, eta Bilbao basque FESTen gure lurraldeko produkturik onenak dastatzeko eta prestaketa tradizionalak egiten ikasteko aukera izango duzu, gero hiriko taberna eta jatetxeetan dastatu ahal izateko. **Dastatu eskualdeek Gourmet Txokora ekarriko dituzten KM0 gozamenak (gazta, txakolina, ogi, piperrak, txokolatea...)** eta ikasi nola egiten diren Bilboko klasikoak, hala nola gilda edo kilkerrak, baita prestaketa originalak ere, tailer gastronomikoetan: bakailao ceviche-a, baserriko nigiri edo Eusko Labela duen txahal-tartarra.

Espres dastatzeak

28 osteguna	29 ostirala	30 larunbata	31 igandea
12:00 Urdaibaiko Esentziak. Txakolina eta Kontserbak 1. aretoa URDAIBAI	12:00 Urdaibaiko Esentziak. Txakolina eta Kontserbak 1. aretoa URDAIBAI	12:00 Villabuena de Álava / Eskuernagako ardoa - Arabako Errioxa 1. aretoa ARABAKO ERRIOXA	12:00 Euskal Vermouts Dastaketa 1. aretoa
12:10 Samaniegoko ardoa - Arabako Errioxa 2. aretoa ARABAKO ERRIOXA	12:10 LEZAMAKO gilden dastatzea 2. aretoa URIBE	12:10 Euskal Pastizak - Macarons 2. aretoa IPARRALDE	12:30 Alkoholik gabeko koktelak 2. aretoa
13:00 Ezpeletako biperra 1. aretoa IPARRALDE	13:00 Loraldi desberdinetako eztiak dastatzea 1. aretoa TOLOSALDEA	13:00 Maruri-Jataberen izozki artisauenitsu-itsuko dastatzea 1. aretoa URIBE	13:00 Euskal Vermouts Dastaketa 1. aretoa
13:10 Iza Okindegia 2. aretoa GORBEIALDEA	13:10 Lapuebla de Labarcako ardoa - Arabako Errioxa 2. aretoa ARABAKO ERRIOXA	13:10 Bizkaiko jatorri-deiturako txakolin eta Vermut-dastatzea 2. aretoa GORBEIALDEA	13:30 Alkoholik gabeko koktelak 2. aretoa
14:00 Idiazabal lurraldeko sagardoak 1. aretoa GOIERRI	14:00 Loraldi desberdinetako eztiak dastatzea 1. aretoa TOLOSALDEA	14:00 Maruri-Jataberen izozki artisauenitsu-itsuko dastatzea 1. aretoa URIBE	
14:10 Bizkaiko jatorri-deiturako txakolin eta Vermut -dastatzea 2. aretoa GORBEIALDEA	14:10 Urigoitiko txorizoak 2. aretoa GORBEIALDEA	17:00 Txokolate-dastatzea 1. aretoa TOLOSALDEA	
17:00 Idiazabal lurraldeko gaztak 1. aretoa GOIERRI	17:00 Ardi gasna 1. aretoa IPARRALDE	17:10 Villabuena de Álava / Eskuernagako ardoa - Arabako Errioxa 2. aretoa ARABAKO ERRIOXA	
17:10 Samaniegoko ardoa - Arabako Errioxa 2. aretoa ARABAKO ERRIOXA	17:10 Bizkaiko jatorri-deiturako txakolin eta Vermut-dastatzea 2. aretoa GORBEIALDEA	18:00 Txokolate-dastatzea 1. aretoa TOLOSALDEA	
18:00 Uribeo 2 koloretako txakolin-dastatzea 1. aretoa URIBE	18:00 Urigoitiko txorizoak 1. aretoa GORBEIALDEA		
18:10 Bizkaiko jatorri-deiturako txakolin eta Vermut-dastatzea 2. aretoa GORBEIALDEA			




Sukaldaritza-tailerrak

28 osteguna	29 ostirala	30 larunbata	31 igandea
12:15-13:00 Oso maki (sushi): arroza, hegaluzea eta piper ozpin-olioa	12:15-13:00 Pintxo beganoak: nigiri gunkan eta baserriko nigiri	12:15-13:00 Bakailao-cevichea	12:15-13:00 Bilboko pintxo tipikoak: kilkerra, gilda eta bilbainitoa
13:15-14:00 Oso maki (sushi): arroza, hegaluzea eta piper ozpin-olioa	13:15-14:00 Pintxo beganoak: nigiri gunkan eta baserriko nigiri	13:15-14:00 Bakailao-cevichea	13:15-14:00 Bilboko pintxo tipikoak: kilkerra, gilda eta bilbainitoa
17:15-18:00 Bilboko pintxo tipikoak: Kilkerra, gilda eta bilbainitoa	17:15-18:00 Hegaluze-tartarra	17:15-18:00 Eusko Label txahal-tartarra	
18:15-19:00 Bilboko pintxo tipikoak: Kilkerra, gilda eta bilbainitoa	18:15-19:00 Hegaluze-tartarra	18:15-19:00 Eusko Label txahal-tartarra	

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



market

Etxera eraman nahi duzu euskal esentziaren zati bat? **Etorri Areatzara Gourmet Txokoak eskaintzen dituen espezialitate gastronomikoak erostera eta eskualdeetako erakargarritasun turistiko handiak ezagutzera.** Joan hiriko establezimenduetara eta hornidura-azoketara, Erriberako Merkatu historikora, adibidez.

Euskal gozamen bikainez gain, pieza paregabeak erosi ahal izango dituzu **artisautza-azokan: zeramika, larruzko eta zurezko lanak... Igandeko merkatuko lore freskoekin konbina ditzakezun "bitxiak", oparitzeko edo zure etxea apaintzeko.**




27-31
martxo | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



zinema

“Basque” zigilua duten lehen mailako tituluak. **“20.000 especies de abejas”** filma izango da Zinema sekzioko protagonista. Fenomeno zinematografiko horrek 3 Goya sari irabazi ditu (zuzendaritza berri onena, gidoi original onena eta emakumezko bigarren aktore onena) eta historian hautagaitza gehien izan dituen opera prima da (15 izendapen). Berlingo azken jaialdian ere arrakasta handia izan zuen, eta 10 urteko Sofia Otero interprete gazteak Zilarrezko Hartza irabazi zuen. Estíbaliz Urresolaren film luzearekin batera, Bilbao basque FESTeko kartelean egongo da Martín Romeroren **“To bird or not to bird”** ere, aurtan bere kategoriako Goya saria jaso duen film laburra.



27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

bilbao
basque
FEST



“20.000 especies de abejas” eta “To bird or not to bird”, euskal zinemaren izarrak Bilbao basque FESTen

Euskal zinemaren bi adierazgarri izango dira Zinema sekzioko protagonistak. BBK Aretoa Estíbaliz Urresola arabarraren “20.000 especies de abejas” proiektatuko du, sari gehien jaso dituen tokiko ikus-entzunezko ekoizpenetako bat (3 Goya, hiru Gaudí eta bi Feroz sari). Publikoak egunero ikusi ahal izango du, euskal animazioko “altxor” baten ondoren: “To bird or not to bird”, Martín Romerok zuzendua eta Unikok ekoitzia, Goya sari baten irabazlea.


Kokapena: BBK Aretoa

Datak eta ordutegiak:

Martxoak 28, osteguna, 18:00etan: “To bird or not to bird” film laburraren proiektzioa.
Horren ondoren, “20.000 especies de abejas” filmaren proiektzioa.

Martxoak 28, osteguna, 18:00etan: “To bird or not to bird” film laburraren proiektzioa.
Horren ondoren, “20.000 especies de abejas” filmaren proiektzioa.

Martxoak 28, osteguna, 18:00etan: “To bird or not to bird” film laburraren proiektzioa.
Horren ondoren, “20.000 especies de abejas” filmaren proiektzioa.



EGITARAUA EGUNEZ EGUN

bilbao
basque
FEST

27-31
martxoa | march
marzo | mars
2024

*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

27

asteazkena

19:00 - 20:30

AZKUNA ZENTROA

Jaialdiaren aurkezpen-ekitaldia
Kuttuneren kontzertua

22:00 - 00:30

KAFE ANTZOKIA - Basque Fest Rock City

Kontzertua
Akatz + Arratians

*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

28

osteguna

11:00 - 14:00 12:00 - 13:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Bilboko Udal Musika Eskolako txistularien bandak lagunduta
11:30 - 14:30 16:00 - 19:30	ARENAL Gourmet Txokoa Dastatze eta tailer gastronomikoak. 2 €-ko dohaina Etorkizuna Musikatan proiekturako. Familia-jarduerak. Belaunaldiarteko zurezko jolasak / Euskal Photocall / Market
JARDUERAK 11:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 12:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Bizkaiko Txapelketa Ofiziala: Gizonezkoen eta emakumezkoen orga-jokoa. • Gizonezkoen eta emakumezkoen 1. kategoriako harri-jasotzaileen desafioa. • Gizonezkoen eta emakumezkoen ingude-altxatze desafioa, mistoa.
11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30	ITSASADARRA (Bilboats) Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Bego-txurekin. "We are the Champions League" 30 minutuko paseak. 12 urtetik gorakoentzat. Ibilbidea: Pio Barojako pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura. <i>Tiketak eskura https://www.bilboats.com/ webgunean eta Bilboats bulegoan (Pio Baroja plaza) 3 €</i>
12:00 - 13:00	BERREGINEN MUSEOA Kontzertu poetikoa "Huesos" Puy Barral eta Manu Gaigne

28

osteguna

12:00 - 14:00	ALDE ZAHARRA - AREATZA “Anfitrioiak” Hortzmuga Teatroa Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua: San Anton-go eliza, Konsuletxeko plaza, Erriberako merkatua, Erriberako zubira sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa eraikina”.
12:30-14:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-jarduerak Zirku-tailerra. La Glo
13:00 - 15:00	KAIA ON SET Martzanako kaia 16 Dj saioak
13:30 - 15:00	POZA LIZENTZIATUAREN KALEA - GARCÍA RIVERO Kalejira Ziortza eta Leire
13:30 - 15:00	VILLARÍAS - LEDESMA Kalejira Izalde
16:00 - 19:00 17:00 - 18:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Jira Musikak lagunduta
JARDUERAK 16:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 17:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Aizkora: ebaketa 5 metroko altueratik + desafioa lurrean. • Barrenatzaileen desafioa, taldeka. • Publikoak barrena probatzeko eta aizkolariekin esperientzia partekatzeko aukera izango du.

28
osteguna

18:00 - 21:00	KAIA ON SET Martzanako kaia Dj saioak
18:00 - 19:00	LA CONCORDIA (FEVE) GELTOKIKO HALLEAN "Yijaaa" Goitibera kale-antzerkia, La Concordia (FEVE) geltokiko hallean kokatuko da, eta ez Erripako kaian, aurreikusita zegoen bezala.
18:00 - 19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-antzerkia "Historias de un baúl" Trotamundos konpainia
18:00 - 20:30	BBK ARETOA - Zinema Film laburra "To bird or not to bird" (10 min) Animaziozko film labur onenaren Goya Saria Filmaren proiektzioa "20.000 especies de abejas" (129 min) Gidoi, zuzendari hasiberri eta bigarren mailako emakumezko aktore onenaren Goya saria.
18:30 - 19:30	BIZIKIDETZA PLAZA (Isozaki dorreak) Dantza Salbatzaile Dantza Taldea
19:00 - 20:00	ZABALGUNEA Magia-ikuskizuna "Los inventores" Oliver & Liuba
19:00- 20:30	BILBO HISTORIKOA "Funky Brass" Ibilbide musikala: Erriberako merkatua, Erriberako zubia, Martzana kalea, Aretxaga kalea, San Frantzisko kalea, Hiru Zutabe plaza.
19:00 - 20:00	GAS PLAZA Dantza plazan Ziortza eta Leire

28

osteguna

19:00 - 20:30	AZKUNA ZENTROA Kontzertua "Dizdira" Bilbao Musika
20:00 - 21:00	BILBOROCK - Humor&Basque Bakarrizketa (euskera) 18 urte baino gehiagokoentzat "Tu Tum Platz" Jon Plazaola
20:00 - 21:00	ROCKET ARETOA Chulería, Joder!
21:00 - 22:00	AZKENA BILBAO Kontzertua Iñigo Puertas
21:00 - 00:30	ANTZOKI – Bilbao Basque Fest Rock City Kontzertua Jim Jones Allstars + Los Retumbes

*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

29
ostirala

11:30 - 14:30 16:00 - 19:30	ARENAL Gourmet Txokoa Dastatze eta tailer gastronomikoak. 2 €-ko dohaina Etorkizuna Musikatan proiekturako. Familia-jarduerak. Belaunaldiarteko zurezko jolasak / Euskal Photocall / Market
11:00 - 14:00 12:00 - 13:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Bilboko Udal Musika Eskolako txistularien bandak lagunduta
JARDUERAK 11:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 12:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak 1. kategoriako aizkolarien desafioa: ebaketa mota desberdinak (lan luzea, ebaketa bertikalean, kolpeka eta abiadura bizian). - Iparraldeko jokoen desafioa: lasto-altxatzea. - Lasto-jaurtiketa eta ingude-altxatzea
11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30	ITSASADARRA (Bilboats) Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Begotxurekin. "We are the Champions League" 30 minutuko paseak. 12 urtetik gorakoentzat. Ibilbidea: Pio Barojako pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura. <i>Tiketak eskura https://www.bilboats.com/ webgunean eta Bilboats bulegoan (Pio Baroja plaza) 3 €</i>
12:30 - 14:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-jarduerak Zirku-tailerra. La Glo

29
ostirala

12:00 - 14:00	ALDE ZAHARRA - AREATZA “Anfitrioia” Hortzmuga Teatroa Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua: San Antongo eliza, Konsuletxeko plaza, Erriberako merkatua, Erriberako zubira sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa eraikina”.
13:00 - 15:00	KAIA ON SET Martzanako kaia 16 Dj saioak
13:30 - 15:00	POZA LIZENTZIATUAREN KALEA - GARCÍA RIVERO Kalejira Izalde
13:30 - 15:00	VILLARÍAS - LEDESMA Kalejira Jira Musika
16:00 - 19:00 17:00 - 18:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Ziortza eta Leirek lagunduta
JARDUERAK 11:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 12:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Trontza-desafio mistoa • Goma gaineko sokatira: erakustaldia munduko txapeldunen eskutik • Sokatira-desafioa publikoaren eta tiratzaileen artean • Trontza-tailerra
18:00 - 19:00	LA CONCORDIA (FEVE) GELTOKIKO HALLEAN “Soy la bomba” Bea Larrañaga , kale-antzerkia, La Concordia (FEVE) geltokiko hallean kokatuko da, eta ez Erripako kaian, aurreikusita zegoen bezala.

29
ostirala

18:00 - 19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-antzerkia "Mute" Orain-bi
18:00 - 21:00	KAIA ON SET Martzanako kaia Dj saioak
18:00 - 20:30	BBK ARETOA - Zinema Film laburra "To bird or not to bird" (10 min) Animaziozko film labur onenaren Goya Saria Filmaren proiektzioa "20.000 especies de abejas" (129 min) Gidoi, zuzendari hasiberri eta bigarren mailako emakumezko aktore onenaren Goya saria.
18:30 - 19:30	BIZIKIDETZA PLAZA (Isozaki dorreak) Dantza "Aiurri" Aukeran
19:00 - 20:00	ZABALGUNEA Magia-ikuskizuna "Los inventores". Oliver & Liuba
19:00 - 20:30	BILBO HISTORIKOA "Rock´n Brass" Ibilbide musikala: Naxa kalea, Mesedeetako kaia, Martzana kalea, Aretxaga kalea, Erriberako merkatua.
19:00 - 20:00	GAS PLAZA Dantza plazan - Erromeria Jira Musika
19:00 - 20:30	AZKUNA ZENTROA Kontzertua Sarrabete

29
ostirala

20:00 - 21:00	BILBOROCK - Humor&Basque Bakarrizketa (16 urte baino gehiagokoentzat) “Tirando del carro” Bocabeats Comedia
20:30 - 21:30	AREATZAKO KIOSKOA Kontzertua Eider
21:00 - 22:00	AZKENA BILBAO Kontzertua Norman Bates
22:00 - 00:30	KAFE ANTZOKIA - Basque Fest Rock City Kontzertua Munlet Plays Devo + Paniks

*Aire zabalean egiten ez diren jarduerak plaza mugatuak dituzte, edukiera bete arte.

30

larunbata

11:30 - 14:30 16:00 - 19:30	ARENAL Gourmet Txokoa Dastatze eta tailer gastronomikoak. 2 €-ko dohaina Etorkizuna Musikatan proiekturako. Familia-jarduerak. Belaunaldiarteko zurezko jolasak / Euskal Photocall / Market
11:00 - 14:00 12:00 - 13:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Bilboko Udal Musika Eskolako txistularien bandak lagunduta
JARDUERAK 11:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 12:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Crossfit - Herri Kirolak desafioa: talde mistoak
11:30 12:30 13:30 16:30 17:30 18:30	ITSASADARRA (Bilboats) Itsasadarreko pasealdi antzeztuak Mirentxu eta Begotxurekin. "We are the Champions League" 30 minutuko paseak. 12 urtetik gorakoentzat. Ibilbidea: Pio Barojako pantalanetik Carola garabiraino, ziaboga eta buelta abiapuntura. <i>Tiketak eskura https://www.bilboats.com/ webgunean eta Bilboats bulegoan (Pio Baroja plaza) 3 €</i>
12:30 - 14:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-jarduerak Zirku-tailerra. La Glo

30
larunbata

12:00 - 14:00	ALDE ZAHARRA - AREATZA “Anfitrioiak” Hortzmuga Teatroa Bilboko historiari buruzko ibilbide antzeztua: San Antongo eliza, Konsuletxeko plaza, Erriberako merkatua, Erriberako zubira sarrera, Arategizar kalea, Arana jauregia, Done Jakue katedrala, Dorre kalea, Posta kalea, Plaza Barria, Areatzako kaia, Zingira kalea, Areatzako kaia, Arriaga Antzokiaren aurrealdea, Posta kalea, Bidebarrieta kalea, Txakur kalea, Andra Maria kalea, “La Bolsa eraikina”.
13:00 - 15:00	KAIA ON SET Martzanako kaia 16 Dj saioak
13:30 - 15:00	DIPUTAZIO KALEA Emanaldia: Bilbotxeros Band
13:30 - 15:00	POZA LIZENTZIATUAREN KALEA - GARCÍA RIVERO Kalejira. Emanaldia: Jira Musika
13:30 - 15:00	VILLARÍAS Kalejira. Emanaldia: Ziortza eta Leire
13:30 - 15:00	LEDESMA Kalejira. Emanaldia: Fanfarria Samasiku
16:00 - 19:00 17:00 - 18:30	SALBEKO ZUBIAREN AZPIAN Gargantua Salbeko zubiaren azpian kokatuko da (Guggenheim Bilbao Museoaren gunean), eta ez da Guggenheim Bilbao Museoaren zabalgunean egongo, aurreikusita zegoen bezala. Izaldek lagunduta

30
larunbata

JARDUERAK 16:30 ERAKUSTALDIAK ETA TXAPELKETAK 17:30	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Pentatloi desafioa: erlojupekoa, harri-jasotzea, gizon-proba, aizkora, txinga-garraioa eta lasterketa.
18:00 - 19:00	LA CONCORDIA (FEVE) GELTOKIKO HALLEAN "Jacuzzi" niMú, kale-antzerkia, La Concordia (FEVE) geltokiko hallean kokatuko da, eta ez Erripako kaian, aurreikusita zegoen bezala.
18:00 - 21:00	KAIA ON SET Martzanako kaia Dj saioak
18:00 - 19:00	CASILDA ITURRIZAR PARKEA Familia-antzerkia "Bualá" Txaloka
18:00 - 20:30	BBK ARETOA - Zinema Film laburra "To bird or not to bird" (10 min) Animaziozko film labur onenaren Goya Saria Filmaren proiektzioa "20.000 especies de abejas" (129 min) Gidoi, zuzendari hasiberri eta bigarren mailako emakumezko aktore onenaren Goya saria.
19:00 - 20:00	ZABALGUNEA Magia-ikuskizuna "Los inventores" Oliver & Liuba
19:00 - 20:00	GAS PLAZA Dantza plazan - Erromeria Ortzadar

30
larunbata

19:00 - 20:30	BILBO HISTORIKOA "Jazz & Fusion Musik" Ibilbide musikala: Urazurrutia kalea 24, Bilbi plaza, Hiru Zutabe plaza, Artxaga kalea, Martzana kalea.
19:00 - 20:30	AZKUNA ZENTROA Kontzertua Amaterra
20:00 - 21:00	BILBOROCK - Humor&Basque Bakarriketa (16 urte baino gehiagokoentzat) "Mejor será reírnos" Aroa Berrozpe
20:30 - 21:30	AREATZAKO KIOSKOA Dantzaldia Kresala
21:00 - 22:00	AZKENA BILBAO Kontzertua Triple Zero
22:00 - 00:30	KAFE ANTZOKIA - Basque Fest Rock City Kontzertua MFC Chicken + The Allnighters

31
igandea

11:00 - 14:00	ARENAL Gourmet Txokoa Dastatze eta tailer gastronomikoak. 2 €-ko dohaina Etorkizuna Musikatan proiekturako. Euskal pilotaren minimuseoa eta tailerrak. Bolo eta igel txapelketa. Belaunaldiarteko zurezko jolasak. Euskal Photocall Euskal Folkloreko jantzien erakusketa
11:00 - 14:00	AREATZAKO KARPAREN KANPOAN Udal Musika Eskolako txistularien banda
ERAKUSTALDIA 12:00 - 12:45	AREATZAKO KAIA Herri Kirolak • Aizkolarien erakustaldia, Alex Txikonen eskutik. • Harrijasotzaile • Iparraldeko joko
12:00 - 12:45 12:45 - 14:00	ARTXANDA (patinatzeko pista) Euskal dantza tailerra Erromeria Gaztedi
13:00 - 14:00	AREATZAKO KAIA Dantza plazan
13:00 - 15:00	KAIA ON SET Martzanako kaia 16 Dj saioak

bilbao basque FEST

www.bilbao.eus/basquefest

